

Esther Vivas:

"ANIZTASUNAREN LILURA GISAKO BATEAN BIZI GARA, BAINA GURE ELIKADURA GERO ETA HOMOGENEOAGOA DA"

Esther Vivas (Sabadell, Herrialde Katalanak, 1975) aspaldi hasi zen elikagaien industriaren zirrikituetan murgiltzen. Hainbat urteko ikerketaren harira gogorarazten dizkigu gizartean erabat barneratuta dauden praktiken arriskuak. Horretaz mintzo da, hain zuzen ere, 2014an argitaratu zuen *El negocio de la comida* (Janariaren negozioia) liburuan. Iragan apirillean liburuaren hirugarren edizioa atera zuen.



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Liburuak sekulako harrera izan du. Emaitzarekin pozik?

Liburuaren lehen edizioa kaleratu nanean inpaktu positiboa izan zuen. Pozik nago, liburuak nekazaritzako elikagaien industria ereduaren azterketa sakon baten ondorioa delako, alegia, urte askoko lanarena. Argi dago gai honek geroz eta jende gehiagoren interesa pizten duela.

Zenbateraino aldatu da egoera liburuaren lehen edizioa 2014an argitaratu zenuenetik?

Zoritarrez, ez asko. Egoera hobetze-

ko aurreikuspenak ere ez ziren oso baikorrak. Enpresa handien esku dagoen elikadura eredu bat dugu, hainbat gobernuen sostengua izan duena. Beraz, herritarren mobilizazioak eta egoeraren kontzientzia hartzeak soilik ahalbidetu dezakete aldaketaren bat sistema horretan. Are gehiago, nekazaritza elikagaien ereduaren alternatibak proposatzen dira gizarte zibilaren mobilizazioak erakundeen erabaketan eragin nahi duelako. Azken finean, gure eskakizunek harrera hobea izango dute erakundeetan dauden gobernuen siglen arabera.



Nola uler daiteke historikoki elikagai gehien ekoizten diren une berean egotea gose tasarik handienak?

Funtsean elikadura negozio bilakatu delako, jatea oinarrizko eskubidea bada ere. Eskubide hori merkaturatu egin da, nekazaritza-industriaren multinazional gutxiren negozio bilakatu. Ondorioz, enpresa gutxi horiek dute nekazaritza elikagaien industriaren kontrola eta, noski, euren interes ekonomikoak eta zekentasuna lehenesten dituzte, gosez hiltzen ari direnen beharren gainetik. Horrela, errazagoa da ekoizten diren



elikagaiak zakarretan bukatzea gure sa-belean baino.

Zure liburuan kritika gogorra egiten diozu elikagaien itzalean ezkutatzen den merkatuari.

Bai, eta larriena da enpresa handi horiek baldintzatzen dutela guk ondoren merkatuan erosiko dugun produktua-ren prezioa, baita ekoizleek euren lana egiteagatik izango duten ordainsaria ere. Ondorioz, nekazariak geroz eta diru gutxiago jasotzen dute saltzen dituzten produktuen truke, geroz eta garestiago

ordaintzen ditugun bitartean. Multinazionalak kontrolatzen dute ekoizle, nekazari eta kontsumitzailearen artean dagoen inbutua eta, kontuan hartuta gure erosketen %80 egiten dela supermerkatuetan, ondorioak oso larriak dira.

Joera honek eraginik izan du bertako elikagaiak lehenetsi ordez kanpokoak ekartzeko?

Ehun-ekoizpena deskokatu den bezala, elikagaien eredian ere fenomeno berdina gertatu da. Enpresa handiak

» **“Errazagoa da elikagaiak zakarretan bukatzea gure sa-belean baino”**

» **“FAO erakundearen arabera, XX. mendean desagertu zen elikagaien aniztasunaren %75”**

kanpoaldeko herrialdeen lan prekarie-tateaz baliatzen dira, salneurri arras merkean ekoiztu eta produktuak hemen prezio lehiakorrean salduz. Eta, beraz, supermerkatuek pisu handia dute jaten duguna nondik datorren erabakitzeko, baita nekazaritza txirotzeko ere.

Arriskuan al daude geure elikagaiak?

Arriskua ez, egitatea da. FAO Nekazaritza eta Elikaduraren Erakundearen arabera, XX. mendean desagertu zen elikagaien aniztasunaren %75. Eta gurea ez da salbuespena izan. Supermerkatu-
ra joan eta aukera gutxi ikusten dituzu *iceberg* letxugatik haratago, adibidez. Aniztasunaren lilura gisako batean bizi gara, eta aldiz, gure elikadura geroz eta homogeneoagoa da. Ez hori bakarrik, enpresa handien apustua da errentagari-
riagoak, eta ondorioz, artifizialagoak diren laboreak ekoiztea. Beraz, beste behin, merkatuaren logika inposatzen da landatutako produktuaren gainetik. Adibide gisa, mundu zabalean ekoizten den arrozaren %95 bost motatakoa bai-
no ez da.

Elikagaien pribatizazioa Iraultza Berdeak eragin omen zuen.

Nekazaritzan eta ingurugiroan inpaktu oso negatiboak eragin zituen fenomeno izan zen Iraultza Berdea. Ez zen iraultza, ezta berdea ere. Aurrekariak 40 eta 50eko hamarkadetan dituen arren, Iraultza Berdea 60ko hamarkadan Ford eta Rockefeller Fundazioek, AEBetako Gobernuaren laguntzarekin, ekoizpenaren kopurua handitzeko asmoz sustatu zuten fenomeno izan zen. Munduko gosearekin amaitzeko eslogana zuen, nekazaritza modernizatu eta produktiboago egiteko politikak sustatuz. Baina fenomeno horren atzean dagoena da baliabide naturalak pribatizatu eta nekazaritza enpresa gutxiren esku uzteko apustua.

Kontsumo kritikoa inguruan ez al dago gizartean desinformazio handia?

Baikorra naiz horrekiko. Uste baitut geroz eta jende gehiagok duela interesa kontsumo kritikoa. Azken finean, osasuntsu bizi nahi dugu, eta geroz eta informazio gehiago dugu elikagaiak behar bezala aukeratzeko. Horregatik, gehiago dira gaur egun janari ekologikoa kontsumitzen dutenak. Goraka doan merkatu sektorea da janari ekologikoa. Joera



» “Erronka kontsumo kritikoa politizatzea da, bestela gerta daiteke –gertatzen hasi da– merkatu konbentzionalean kritikatzeko duguna ekologikoa ere onartzea. ‘Eko’ etiketaz haratago, hurbiltasuneko etiketaren garrantzia aldarrikatu behar da”

» “Geroz eta jende gehiagok du interesa kontsumo kritikoa; azken finean osasuntsu bizi nahi dugu, eta geroz eta informazio gehiago dugu elikagaiak aukeratzeko. Horregatik doa goraka janari ekologikoa merkatu sektorea”

“Genero erasoaren azken mugetakoa da eraso obstetrikoa, zoritxarrez gizartean erabat barneratuta dagoena. Emakumeok hainbeste aldarrikatzen dugun erabakitzeko eskubidea, erditzen garenean ospitaleetako atean gelditzen da”.

hori oso interesgarria da, baina erronka kontsumo kritikoa joera politizatzea da. Urrats hori ematen ez badugu gerta daiteke –dagoeneko gertatzen hasi da–, elikagai ekologikoen merkatuan eredu konbentzionalean kritikatzeko dugun hori onartzea. “Eko” etiketaz haratago, hurbiltasuneko etiketaren garrantzia aldarrikatu behar da.

Elikadura eredu komertzialaren krisiak badu irtenbiderik?

Noski, egoera aldatu daiteke. Horretarako ezinbestekoa da batetik, gizarte mugimenduak aspalditik elikadura burujabetzaren alde sustatu duen borrokaren jarraipena, eta noski, nahimen politikoa. Izan ere gaur egun lehen eta bigarren mailako elikagaiak daude, eta logikoa da erakunde publikoek lan egitea elikagaiak hiritar guztien sabeletara iristeko. Hori bai, asko dago egiteko oraindik.

Zeintzuk lirateke zure ustez erakunde publikoek hartu beharko lituzketen funtsezko neurriak?

Hasteko, eta ekoizpenari dagokionez,

lur eremuak nekazariarentzat eskuragarri jartzea. Era berean, ekoizle txikiei erraztasun handiagoa ematea ezinbestekoa da, produktuak merkaturatu ahal izateko. Noski, elikadura konbentzionalak geure osasunean dituen inpaktu negatiboak informatzeko politika argien beharra dago, eta azkenik, legez behartzea erakunde publikoetako jangela guztietan kontsumo kritikoa sustatzen duen elikadura.

Globalizazioaren eragina bizitzako alor guztietara iritsi da. Zuk diozu erditzea ere industrializatu egin dela. Zer erran nahi duzu?

Sistema kapitalistak merkaturatzen ditu gure bizitzaren alor guztiak; elikaduratik hasi eta erditzeraino. Ondorioz, azkenaldian sistema kapitalista eta patriarkalak sekulako eragina izan du emakumeen erditzean ere. Emakumeok hainbeste aldarrikatzen dugun erabakitzeko eskubidea, erditzen garenean ospitaleko ateetan gelditzen da, zoritxarrez. Adibide gisa, ezin dugu erabaki nola erditu edo nor egon daitekeen erditzearen uanean.

Eraso obstetrikoren arriskua salatzen duzu.

Noski, genero erasoaren azken mugetako bat baita eta, zoritxarrez, gizartean erabat barneratuta dagoena. Biolentzia obstetrikoa izan daiteke psikologikoa; emakumea erditzean gutxietsiz; edo fisikoa, beharrezkoak ez diren zesareren bitartez, edo episiotomiaren gisako hainbat praktikaren bitartez egunero gauzatzen dena. Gogorra da, baina erditzea bezalako ekintza natural bat gaixotasun bilakatu dute. Eta okerrena da emakumeok praktika horien aurrean ez dugula hitzik. Horretan ere asko dago egiteko. Datuak beldurgarriak dira: Espainian emakumeen %25 zesarea bitartez erditzen da. Hala ere datuak aldatu egiten dira lurraldearen arabera. Euskal Herriko zenbakiak dira baxuenak, erditzen diren emakumeen %15,1eri egiten diete zesarea.

Amaitu aurretik ezin politikaz solastatu gabe pasa. Urriaren 1erako aurreikusita dago Kataluniako autodeterminazio erreferenduma. Egingo da?

Tira, Kataluniako Gobernuaren borondate politikoaren arabera izango da

erantzuna. Zalantzarik gabe, Espainiako legedia desobeditzeko irimotasuna mantentzen badu, egingo da. Ikusi beharko da, baina, noraino iristeko gai diren. Gizarte zibilaren ardura izango da Gobernu norabide horretan estutzea.

Espainiako Gobernuaren presioak ez du erreferenduma baldintzatuko, orduan?

Bai, noski, haren errepresioa noraino iritsiko den ere ikusi beharko da. Baina, orain arteko joera errepikatzen bada, Espainiako Gobernutik zenbat eta presio gehiago iritsi, orduan eta elkartasun handiagoa izan du independentismoak.

Zer deritzozu Generalitatak hilabete hauetan egin duen lanari?

Ikusi duguna da Generalitaren estrategian alderdi interesek pisu handia dutela, eta beraz, Junts pel Sí-k erreferendumarekin hartu zuen konpromisoan sigi-sagak egin dituela. Duela gutxi entzun genuen David Bonvehí, PDCateko bigarren zerrendaburuak esaten zuela, erreferendumaren emaitzen arabera PDCatek estrategia aldatuko zuela. Beraz, zalantza asko daudela esango nuke. Ikusi beharko da zerk duen pisu handiagoa, independentziak edo alderdi interesek.

Procés Constituent ekimeneko kide izan zinen. Porrot egindako egitasmoa izan da?

Tira, Procés Constituent egitasmo politiko berrien aitzindaria izan zela esango nuke. Politika egiteko bide berri bat eraikitzea posible izan da hari esker. Ekimen hark funtsezko eztabaida baten oinarriak josi zituen, hazia ereinez, gaur egun Kataluniako politikan erabakigarriak diren egitasmo politikoaren sorrera ahalbidetzeko.

Katalunian agertoki berria marraztu da. Zeinen aldeko apustua egiten duzu, CUP-Crida Constituent edo sortzen ari den Catalunya en Comú egitasmoarekin?

Krisi ekonomikoak eragin zuen kontzientzia aldaketaren ondoren, ezinbestekoa zen mugimendu soziopolitiko berrien sorrera. Beraz, testuinguru horretan sortu ziren hautagaitza berriak ziren apusturik baliagarrienak, eta nik begi onez ikusten ditut herri hauteskondeetan Barcelona en Comú ekimena eta oraingo Catalunya en Comú ere. ■



eLEKTRIKA
GRABAKETAK

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan
-Nahasketa analogiko profesionala
-Zuzeneko teknikaria

Ander Biarriuso Mufioa
<https://elektrikagrabetak.bandcamp.com/>
<https://www.facebook.com/elektrikagrabetak/>
elektrikagrabetak@gmail.com
tfnoa: 687046386



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonos - Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 - F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com